

## **LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK ARRISKUAN**

Azken asteetan Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen inguruan jaso ditugun "informazioak" direla eta, LABeko kideok oso arduratuta jarraitzen dugu.

Alde batetik, 10 espezialitatetan lanean jarraitzeko aukera emango omen da, baina ez dakigu zein baldintzatan. Bestalde, 19 espezialitatetako langileek ez omen dute lanean jarraitzeko aukerarik izango, ez dakigu zer gertatuko den 2018an itxialdietan egon ziren Irakasle Teknikoen kolektiboko langileekin...

Hau dena ikusita, LAB irakaskuntzatik EKAINAREN 29an JORGE AREVALO Lanbide Heziketako Sailburuordearekin eta BLANCA GUERRERO Langileriaren kudeaketa zuzendariarekin egingo den bileran Hezkuntza Sailari erantzunak eta, batez ere, irtenbideak exijitzen jarraituko dugu, hitz politetatik harago ekintzak eta neurriak zehaztu ditzaten. Izan ere, oraindik orain ez ditugu jaso Blanca Guerrerori idatziz eskatu izan dizkiogun azalpenak.

Argi daukagu, 4 puntu hauetan ez dugu atzera pausurik onartuko:

- 1.- Lanpostu zerrendetan murrizketarik ez ematea.
- 2.- Gaur egun irakasle funtzionarioen kidegoan dauden langileek, baita ordezkoez ere, kidego horretan jarraitzeko aukera izan dezatela beraien bizitza laboralak irauten duen bitartean, eskubide guztien jabe.
- 3.- Irakasle Teknikoen kidegoak irakasleen lan-baldintza eta soldata berberak izan ditzatela.
- 4.- Irakasle Teknikoen kidegoaren lan-baldintzen osaketa eta jarraipenerako sindikatuokin mahaia osatzea.